



Bere hamar taldeak aurkeztu ditu TAKek

TOLOSALDEA ▶ Gipuzkoako
ligaxkan lehiatuko diren batelek
lehen saioa egin zuten Orian

BERRIKUNTZAK ▶ Saldu dituzten
txartelen irabaziekin batel berri
bat erosi ahal izan du klubak ▶ 3



Herenegun eginitako aurkezpenaren une bat. NEREA LIZARTZA



N. URBIZU

IÑAKI MEZQUITA ▶ IRAKASLEA ETA IDAZLEA

«Animaliak hiltzen ez baditugu ere
euren bizilekuak suntsitzen ari gara»

'Tximeleten atzetik' liburua argitaratu du alegiarrak, non
Euskal Herriko ehunka mitxerrika espezie bildu dituen ▶ 5

LEITZA ▶

**Aurrerak 2-0
irabazi du
Betizarraren
aurka**

Lau jokalariren baja
du talde leitzarrek ▶ 7

GAZTELU ▶

**Kultur Etxeko auziko
inputatuek helegitea
aurkeztu dute**

«Ezker abertzalearen aurkako
epaiketa» izan dela salatu dute ▶ 6

orange **Orange** ONJBY

Gernikako Arbola, 1 • TOLOSA

TELEFONOA DOAN

+

%50eko deskontua betirako

Euskaltelen kontratu bidezko bezero bazara

GIZARTEA ▶

Gabonetan «atsedenik ez»

Hirukide eskolako gaztetxoek ekitaldi ugariz beteriko «egun bereziak» igaro dituzte Eguberri hauetan

ERREDAKZIOA

Hiruhilabetearen bukaerak Gabonak gertu zirela adierazten zuen, eta Hirukide eskolan Eguberrietako prestakuntze-kin hasiak ziren ordurako. Eskolako azkeneko astean, esaterako, ikastetxeko korridore guztiak apainduta zeuden, jaiotzak prest eta Gabon ospakizunak martxan.

Abenduaren 19an izan zuten lehendabiziko ekitaldia Haur Hezkuntza eta Lehen zikloko ikasleak. Hauek gurasoentzat antzerkiak eta abestiz osaturiko ikuskizun «hunkigarriak» prestatu zuten. Ondoren, abenduaren 20an, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek hirugarren zikloko neska-mutilek prestatutako antzerkia ikusteko aukera izan zuten. *Lasto artean* antzezlanak gurasoek ere ikusi zuten beranduago eskainitako saioan. Hurrengo egunean, berriz, Hirukideko txikitxoek, Haur Eskolakoek, beraien jaialdia izan zuten Hirukide Gainberrin.

Oporrak hartu baino lehen izan zuten hori guztia, baina oporetako egunetan ere antolatutako ekintzak; abenduaren 23an, Batxilergoko ikasleak *Eguberri kanpainan* jasotako janari guztia banatzeko aritu ziren. Hirukide eskolak, Abegi eta Caritasen izenean, eskerrik beroenak eman nahi dizkie bertan parte hartu duten tolosar guztiei.

Abenduaren 24a iritsi zen eta «hainbeste egunetan entsaiatutako» gabon kantak ka-

lez kale abesteko unea ere bai. Goizean zehar eskolako ikasleak abesten ibili ondoren, Hirukide Jesuitinetako jolaslekuan bildu ziren Guraso Elkarteak prestatutako hamaiketako hartzeko. Arratsaldean berriz, elizan elkartzuz, Gabon meza ospatu zuten ikasleek, irakasleek, gurasoek, eta hara gerturatu ziren herritarrek.

Lehenengo jai egunen ondoren beste ekintza mordo zain zituzten gaztetxoek. Txikienek, adibidez, Hirukide Gainberrin, Gabonetako ludoteka; 3 eta 8 urte bitarteko haurrak izan dira bertan, eta «jolasen eta eskulanean bidez, ondo pasatzea eta giro euskaldunean lagun berriak egitea izan du helburu». Gazteek, berriz, Altzon, Larraulen eta Zestoan, Kirikiñoko kanpaketak izan dituzte; Kokkorrek-eko 70 lagun Zestoaan egon ziren, Bizkorrek-eko 75 neska-mutilaurraulen eta Helduak-eko 50 gaztetxo Altzon.

Bestalde, urte berriarekin batera Ekialdetik datozen Hiru Erregeen bisita ere jaso zuten. Hala, urtarrilaren 9an, Hirukideko ikasleek, Tolosako beste hainbat neska-mutilek bezala Meltxor, Gaspar eta Baltasarri merezi duten harrera eman zieten.

«Oso festa bereziak» igaro dituztela antolatutako ekitaldiekin diote Hirukiden. «Gabonez gozatu eta, aldi berean, deskantsatu ere egin baitugu; orain, berriz, bigarren hiruhilabeteari gogoz eusteko garaia heldu zaigu denoi».



Lehenengo zikloko ikasleak kantu kantari. HITZA



Ezkerrean, Haur Eskolakoak. Eskuinean, berriz, lehenengo zikloko gaztetxoak. HITZA



Lehen Hezkuntzako ikasleak *Lasto artean* antzezlaneko une batean. HITZA

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behean
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

Anoeta. 3 logela, sukalde, egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzeko jartzeko moduan.

Anoeta. Duela gutxi erakuntzan duplexa salgai. Garaje ibia aukeran. Oso egoera onean.

Amezketak, Berastegi, Hernialde, Tolosa eta Zizurkil. Hainbat etxe bifamiliar eta abiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

Berrobi. 3 logela, egongela, sukalde, bainugela eta bi trasteleku. Igogailua jartzeko proiektuarekin.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.

Ibarra. Euskalerria kalea. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Oso egoera onean.

Irura. Etxezarreta. 3 logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Irura. Kale Nagusia, 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Legorreta. Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

Tolosa. Berazubi. Igogailu proiektua onartuta. 228.384 euro.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza salgai. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Zumalakarregi. 92 m². 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berrituta eta estreintzeko. Garajearekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 98 m²-ko pisu zoragarria salgai. Ikuspegi ezin hobea. Estreintzeko. Garajea aukeran.

Tolosa. La Estrella. Etxebizitza salgai oso egoera onean. Igogailuarekin eta garajearekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 83 m². Distribuzio era ezberdinak. Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko. 46 m²ko apartamentu berritua salgai. Igogailu, berokuntza eta garajearekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 125 m²-ko

pisua salgai. Egoera oso ona. Garajea aukeran.

Tolosa. SAM. Iskinetako etxe atxikia salgai. Portxe eta guzti.

Tolosa. Erabat akondizionatutako 120m²-ko lokal-bulegoa alokatzen da. Zonalde bikaina. Egoera ezin hobea.

Oso argitsua eta leiho handiekin. Aire girotua. Egokia edozein bulegorako, mediku kontsultarako, delegazioentzat...

Zizurkil. Etxe atxikia salgai. Terrazarekin eta lorategiarekin. Ezin hobeto. Orientazio bikaina.

Hernani. Akarregi. Errepidearen aldamenean. 385 m² dituen pabiloi industrialria salgai. Estreintzeko.

KIROLAK ▶

Shanti Torneoak baditu jada irabazleak

Intxurre, Orixe Gol, Anoeta A, eta Bihurriak taldeek irabazi dute aurtengo txapelketa



Igandean jokaturako finaleko irudietako bat. NEREA LIZARTZA

E. EZEIZA

Gabonetako Shanti Torneoak baditu irabazleak. Herenegun jokatu ziren infantil eta alebinen arteko finalak. Partidez gain, sari banaketa berezia ere izan zen Usabal kiroldegian. Gaztetxo ugari bildu zen igande goizean Usabalen, ikaskide eta lagunak animatzeko.

Mutiletan, infantil mailan Alegiko Intxurrekoak izan ziren garaile. Hauek Shanti Kiro-lak taldearen aurka lehiatu ziren, eta garaipena lortu zuten. Alebinetan berriz, Anoeta A-koak nagusitu ziren Zuluaga Txikiren kontra jokaturako partidari. Nesketan, heldue-
nen artean Orixe Golekoek irabazi zuten eta Oyarzabalekoak geratu ziren bigarren. Azkenik, gaztetxoan, Bihurriak izeneko taldeak garaitu zuten, eta Zumadikoak izan ziren hurrengoak.

Sariak banatzeko garaian, antolatzaile eta laguntzaileez gain, pertsonaia ezagun ugari izan ziren, besteak beste, Rea-

leko Diaez de Cerio eta Mikel Alonso jokalariek. Han ziren ere, Ion Iraola eta Iker Galarza aktoreak. Ohiturari jarraituz, trofeoz gain, Tolosako hainbat gozotegik eskainitako Errege-opilak dastatu ahal izan zituzten jokalariek.

Eskertza moduan, Luis Javier eta Angel Mari Zurutuza anaiei plaka bat eskaini zieten hogeita bost urte hauetan antolakuntzan egindako lanagatik. Era berean, antolatzaileen eskutik, opari bat eman zioten Luis Javier Lorz-ri, txapelketa-
ren zuzendari teknikoa izan baita urte hauetan guztietan.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkie materialki eta ekonomikoki lagundu duten erakunde eta herritarrei.

Tradizio bilakatu da dagoneko txapelketa hau eta urtero-urtero eskualdeko neska nahiz mutil ugari hartzen dute parte torneo honetan. Aurtengoan eskualdeko 65 talde lehiatu dira ligaxkan, eta 107 partida jokatu dira denera.



Infantilen mailan, Intxurrekoek irabazi zuten. NEREA LIZARTZA

KIROLAK ▶

TAKek bere hamar taldeak aurkeztu ditu

Gipuzkoako Batel Ligaxkan lehiatuko diren batelak aurkeztu zituzten herenegun; ondoren, erakustaldia egin zuten

ESTI EZEIZA

Tolosaldeko Arraun Kluba denboraldi berriari begira lanean hasi da jada. Hori dela eta, herenegun goizean aurkeztu zituzten otsailean hasiko den Gipuzkoako Batel Ligaxkan lehiatuko diren 10 ontziak. Neska eta mutil, aurten ere ordezkariak oparatu izango du TAKek.

Bigarren urtea dute Tolosaldekoek Euskadiko Arraun Federazioaren barruan. Oraingoa ere, Sabino Aljostes izango da klubeko lehendakaria. Herenegun ekitaldian izan ziren Jokin Bildarratz alkatea, Orio Arraun Klubeko Lehendakari den Igon Lertxundi, eta hango prestatzaile den Patxi Frances. Izan ere, TAKeko lau arraunlari Orikoekin batera entrenatzen ari dira. Orio Kluba zenbait adar ditu, eta lan-kidetzak hitzarmen baten bitartez, Tolosaldeko kluba Oriko-aren filiala da.

Hasteko, Gipuzkoako ligaxkan ariko den talde bakoitzaren aurkezpene egin zuten Zerkausiaren, argazki ofiziala aterez. Ondoren, erakustaldia izan zen. Hemen Gipuzkoako Ligaxkan lehiatuko diren taldeez gain, Sanjoanetako estropadei begira, prestatketan ari den senior mailako beste talde bat ere aritu zen. Denera sei txanda egin zituztelarik.

Erakustaldiaren ondoren, Zelai presak eskainita, lunch bat eman zieten arraunlariei, eta hauen senitartekoei. Honekin batera, Eguberrietako saskia entregatu zioten zozketaren irabazleari. Hau Xabier Or-



Tolosaldeko Arraun Klubeko arraunlariak, aurkezpenean. N. LIZARTZA

TALDEAK ▶

NESKAK

- ▶ Infantil-kadete A.
- ▶ Infantil-kadete B.
- ▶ Jubenilak.
- ▶ Jubenil-senior A.
- ▶ Jubenil-senior B.

MUTILAK

- ▶ Kadeteak A.
- ▶ Kadeteak B.
- ▶ Infantilak.
- ▶ Jubenilak A.
- ▶ Jubenilak B.

maiztegi, seniorretako arraunlariari suertatu zitzaion. Honenbestez, txartelen salmentarekin lortutako irabaziei esker, batel berri bat erosi dute klubekoek, arraun eta guzti. Hori baita pixkanaka lortu nahi duten gauzetako bat, hau da, «talde bakoitzak bere ontzia izatea». Bestalde, antolatzaileek

eskerrak eman nahi dizkiete Oria txarangakoei, hauek ere han izan baitziren, beraien doinuekin, ekitaldia alaitzen.

Klubeko arraunlariak ezagutzeaz gain, Zerkausiaren azpiko instalakuntzak ere ikusi ahal izan zituzten aurkezpenean joan ziren herritarrek. Aldagelak, batelak uzteko tokia, materiala... ikuskatu ahal izan zituzten.

Aurtengo denboraldian, aurrerokoan ez bezala, infantil-kadete nesken 2 batel, jubenil-senior nesken 2, jubenil nesken 1, infantil mutilen beste 1, kadete mutilen 2 eta jubenil mutilen 2 talde ariko dira.

Aurreko denboraldia, estreinako izan arren, emaitza onak lortu zituzten Tolosaldeko batelak. Horren adibide da jubenil-senior mailako neskek Gipuzkoako Ligaxka, eta Euskadiko Batel Txapelketa irabazi zituztela.

iragarki laburrak ▶

LANA

Banatzalea. Baserriko produktuak banatzeko banazaile behar da. 943 68 22 14.

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar dugu larunbat arratsaldetarako eta igande goizetarako. Telefono zenbakia: 65004 31 39.

Gitarra-jolea. Erromeri talde batek gitarra-jolea behar du. Interesatuak deitu 665 70 17 75ra.

Sukalde-laguntzaileak. Sukalde-laguntzaileak eskolalarako, udaletxeetarako. 943 44 48 66.

Gidariak. Gidariak erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

SALGAI

Loradenda. Loradenda eskualdatzen da Lasarten.

30 urte baino gehiagoko jarduera, materiala eta guzti. Telefono zenbakia: 943 36 75 75 edo 626 50 56 89.

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko lllantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuak deitu 943 65 41 43ra.

Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera eramaten da. Deitu 615 75 57 62ra.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Tolosa OTA aparkalekuz jositako dago eta jende asko ez dago ados: ordaindu egin behar da, kale gehienetan dago, Berazubini... Horrek bizikletaren eta garraio publikoaren erabilera bultzatzen al du? OTA irtenbide egokia da dagoen auto kopuruari aurre egiteko? Eman zure iritzia gure webgunean.

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA

Bi milioi euro Aurrera eta Ugare berrerratzeko

Geltokiaren aurreko aparkalekua bukatuta dago; datorren urteko amaierarako beste lanak bukatzea auresikusten da

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak 2.162.552 euro kudeatuko ditu Aurrera plaza eta Ugare auzoa berrerratzeko eta 2008. urte amaierarako lanak bukatzea aurreikusuten da. Azken proiektuan herri-erretarrek izan duten parte-hartze handia nabarmetzen du Udalak, izan ere, antolatutako bileretara herriko bizilagun ugari bertaratu da.

Eremu honen berrerraketa lana lau faseetan banatu dute, hauetatik lehenena jadanik bukatua dago. Esku-hartze honen bitartez, ADIFeko geltokiaren aurrean 53 plaza bideratu dituzte autoentzatzat eta beste lau gehiago autobusentzatzat, 2.308 metro karratu dituen gainazalean. Lanek suposatzen duten inbertsioa 216.365,5 eurokoa izan da.

Ondorengo faseak Aurrera plaza eta Ugare auzoan oinarrituko dira. Lehenengo pauso bezala, Udalak plazaren eta Ugareko zati txiki baten lanak esleitu ditu 376.522,85 euro-rengatik. Lanen bitartez, herri-erretarrek erabili ahal izango duten



Geltokiaren aurreko aparkalekua dagoeneko erabili daiteke. HITZA

oinekoentzako eremu berri bat sortuko dute, eta baita 40 auto sartuko diren aparkalekua ere.

Ugareko auzoa bere osotasunean 2008an ikusiko da erabat aldatuta, 1.361.270,66 euroko aurrekontua duen berrerraketa lanak bukatzen direnean. Proiektuak «eremu horretan bizitza baldintzak hobetuko dituen esku-hartzeak jasotzen ditu» eta Oria eta Asteasu erreken bideratze lane-kin zerikusi handia dute, momentu honetan Udalak Eusko Jaurlaritzako Ur

Sailarekin negoziatzen diharduen gaia, hain zuzen ere.

Hirigintzako esku-hartze hauen finantzazioan Eusko Jaurlaritzako Izartu II programak %60ko kostua hartuko du bere gain. Zizurkilgo Udalak «Ugaren bizi diren pertsonen iritziak duten garrantzia kontuan izanik» hiru bilera antolatu zituen. Gobernu taldeak herriko bizilagunek erakutsi duten interesa eskertu nahiko luke, izan ere, bideratu dituzten balorazioek proiektua herritarren nahietara gehiago hurbiltzea lortu dute.

IRURA ▶ IKASTAROKAK

Bi ikastaro berri antolatu ditu Udalak

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak, Landa-ingurueneko Etengabeko Ikaskuntza Heziketa Jardueren baitan, bi ikastaro hauek eman nahi ditu herrian urtarrilaren edo otsailaren hasita: *Euskal sukaldaritza*

sortzaile berria eta Ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazki-ukitua.

Bi ikastaroak 30 ordukoak dira eta 15 pertsona behar dituzte taldea osatzeko. Bi orduko saiotan emango dira ikastaroak. Beraz, adin nagusiko in-

teresdun guztiek izena eman dezakete udaletxean edo liburategian, 943 69 13 33 telefono zenbakira deituz edo kultura.irura@udal.gipuzkoa.net helbidera idatziz. Urtarrilaren 19a baino lehen eman behar dute izena.

'18/98 AUZIA' ▶

Fiskalak akusazioa ken dezala dio defentsak

IMANOL GARCIA

Gabonetako oporraldia delata 18/98 auziko epaiketan hiru asteke etena egin ondoren, atzo ekin zioten herri-erretar epaiketari, Madrilen, eta auzipetuen defentsak fiskalari akusazioa kentzeko eskatu zion.

Enrique Molina fiskalak *Egunkaria auzian* kasua artxibatzeko eskatu zuen orain dela aste batzuk, delitua egin izanaren «frogarik ez» dagoelako. Atzo Iruin abokatuek 18/98 auziko fiskalaren kontrerasana nabarmendu zuten, Iruin ustez Molinak *Egunkaria auzia* artxibatzeko eskatzeak erabilitako dokumentuak fiskalak kasu honetan akusazioak egiteko erabiltzen dituelako. Fiskalari *Egunkaria auzian* erabilitako arrazoiei eusteko eskatu dio Iruinek eta, orduan bezala, akusazioa erretiratzeko. Eskaera horren aurrean, Molina fiskalak erantzun du «aldaketarik egitekoan ondorioen txandan izango dela».

Bestalde, defentsak uko egin zion adituen deklarazioa aurkezteari, «epaiketa politikoa delako». Iñigo Iruin abokatuek defentsaren izenean

esan zuenez. Froga dokumentalari ere uko egin dio defentsak. Akusazioen adituek —gehienak Guardia Zibileko eta Espainiako Poliziako kideak— joan den abenduaren 18an bukatu zituzten euren deklarazioak. Iruinen esanetan, «zalantzak» dira haien arrazoiak.

Defentsaren erabaki horri ere erantzuna eman dio fiskaltzak. Horrela, bere froga perizialak mantentzen ditu eta beste berri batzuk aurkeztuko dituela adierazi zuen. Honen aurrean, defentsak protesta egin zuen, beste froga batzuk aurkezteko aurretik zehaztuta egon behar zuela argudiatuz. Frogak aurkezterakoan, epaimahaia erabakiko du froga bakoitza onartu ala ez.

Eskaerak Nekane Txapartegi asteasuarra, Mikel Egibar zizurkildarra eta Joxe Mari Olarra billabonatarra daude inputatuen artean. Epaiketan, ondorioen garaia iritsi arte, auzipetuek Euskal Herriatik Madrilera bueltara ez ibiltzea izan da defentsak egindako beste eskaera bat. Epaimahaia eskaera hori ez du onartu eta inputatuek eguneroko sesio guztietara joan beharko dute.

VILLABONA ▶

Sahararako produktuen bilketa udaletxean

ERREDAKZIOA

Saharara bidaltzeko hainbat produktu biltzen ari dira Villabonan. Atuna oliotan, arroza, azukrea, lentejak eta konpresak dira herritarrek eraman ditzaketan produktuak.

Elkartasuneko bilketa udaletxean egiten ari dira eta hila-ren 19a arte izango da aukera horretarako. Astelehenean ostirala bitartean eraman daitezke produktuak udaletxera eta ordutegia 08:00etatik 14:00etara da.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

URBITANTE

SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 12tik aurrera zabaltzen dugu

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 18 01 19
20211 ATAUN

KIMETZ
GAZTE ARROPA

% 30eko ESKAINTZA

Nagusia, 23 • TOLOSA
Tel.: 943 67 38 62

IÑAKI MEZQUITA ▶ IRAKASLEA ETA IDAZLEA

«Animaliak hiltzen ez baditugu ere, haien bizilekuak ari gara suntsitzen»

Mitxerrika da hurbiletik behatu duen animalia, eta 'Tximeleten atzetik' liburu berriari naturara hurbiltzeko eta maitatzeko bide bezala erabili nahi izan du

NEREA URBIZU

Mitxerrika bila aritu da Iñaki Mezquita ia 19 urtetan zehar (Alegia, 1959). Animalia ezagun eta aldi berean ezezagun honen bitartez, natura maitatzeko ziotzat hartu du alegiarak: urte askotan egindako lanak *Tximeleten atzetik* izena hartu du.

Mitxerrika, tximeleta. Zergatik animalia hori?

1988. urtean hasi nintzen, baina ez tximeleta bila zehazki. Natura biziki maite dut eta argazkiak egitera ateratzen nintzen mendira, edozerri ateratzera. Lagun batek orduan esan zidan ea zergatik ez nizio argazkiak zerbaiti zehazki egiten, argazkilaritza mailan beti ere. Batean, tximeleta bati egin nion, eta emaitza ikusi nuenean, gustatzen hasi zitzaidan. Berehala interesa piztu zitzaidan animalia horren espeziea zein zen jakiteko, eta berezia edo aurkitzea zaila zela ikustean, animatu nintzen, eta horrela hasi nintzen.

Nondik ibili zara argazki hauek lortzeko?

Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian ibili naiz; Araban asko egin izan ditut. Hiru lurralde hauetan bakarrik, 155 espezie inguru daude. Liburuan ez daude denak, baina gehienak bai. Kontua da ez dela bilduma bat, helburua ez da hori izan.

Zein izan da orduan helburua?

Helburua jendeak, tximeleten bitartez naturarekiko maitasun horretara ailegatzea da; hauek ezagutzeko natura maitatzera iritsi, jendearengana erakarri. Nik hori transmititu nahi izan dut. Ez da zientzia liburu bat, ezta argazki liburu ere. Alde horretatik bitxia da eta ez da erraza sailkatzen.

Ez al dugu mitxerrika maite?



N. URBIZU

HELBURUA

«Helburua, jendeak tximeleten bitartez eta hauek ezagutzeko, naturarekiko maitasun horretara ailegatzea da»

Bai, maitatu bai, baina natura ez da errespetatzen osotara. Gizakiok dena txikitzen ari gara eta animaliak hiltzen ez baditugu ere, haien espazioa suntsitzen dugu.

Euskal Herrian arriskuan da goen mitxerrikarik ba al da?

Bai, baina gehien bat arriskuan haien bizilekuak daude: askotan isolatu eta sinbolikoki babestu nahi ditugu animaliak, eta hori egin da tximeletekin ere, baina emaitza ez da ona:

ARRISKUAN

«Tximeleta espezie batzuk galtzeko arriskuan daude, baina are gehiago haien bizilekuak»

zaindu behar dena haien bizilekuen kalitatea da.

Zer da tximeleta hauek bazten dituen?

Liburuan ikus daitezkeen argazkietan eguneko tximeletak bakarrik dira: izan ere, gauekoak ere badira, eta askoz ere gehiago dira gainera. Espainiar estatuan datuen arabera 225 eguneko tximeleta espezie ezagutzen dira, eta gauekoak aldiz, 3.000. Eta falta direnak! Saillatu gabeko baten bat iku-

si dut. Hori kontrolatzea oso zaila da.

Zenbat itxaron behar izan duzu liburu hasi zenetik?

Eusko Jaurlaritza Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailak, argitaletxeak, hain zuzen, baiezkoa ematetik bi urte itxaron behar izan ditut. Proposamenarekin hainbat argitaletxetara joan nintzen baina ez zuten interesik erakutsi, liburu bera sailkatzeko berezia delako gehienbat.

Gogorra izango zen erantzun hori jasotzea...

Bai. Momentu batez pentsatu nuen hainbeste lan kostatu zitzaidanak ez zuela fruiturik izango. Sekulako pena hartu nuen, baina duela bi urte Eusko Jaurlaritzak baiezkoa eman zidan, eta bi urtetan liburu atera da. Poza sentitu nuen, nigatik eta baita lan honi irtenbide bat eman nahi niolako ere. Atera da, eta orain ea jendeak nola baloratzen duen...

Zein tximeletak liluratu zaitu gehien?

Papilio Machaon deiturikoa. Horia da, oso-oso polita. Ez da arriskuan dagoenetakoa, baina klima aldaketak ziurrenik kaltetu egingo diola. Papilio Machaon tximeleta ez da berezia, nahiko arrunta da, baina hari lotutako kondaira asko daude, horien artean berrargiztatzearena: hildakoen arima hartu eta hegaz eramanen zuen tximeleta honek zerura, edo dena delako behin betiko lekura. Pinpilinpausa hori ikusi nuenean, orduan, mendian, momentu berezia izan zen.

Tximeletei argazkiak egiteko orduan nola egin duzu?

Denak bizirik zeudela atera ditut, eta lekuz aldatu gabe, noski, mendian. Erabilitako kamera analogikoa izan da eta argia ere, egun horretan mendian zegoena. Arrastaka lurtean,



LIBURUA ▶

Titulua. Tximeleten atzetik.

Egilea. Iñaki Mezquita.

Ilustrazioak.

Angel Dominguez.

Argazkilaria. Iñaki Mezquita.

Argitalpena.

Eusko Jaurlaritza.

Argitaratze data.

2006ko abenduaren 6an.

Orrialde kopurua. 370.

Salneurria. 27 euro.

axandaloen atzetik korrika...

era gutxitara ibili naiz!

Zein funtzio betetzen du pinpilinpausak naturan?


Hasteko munduko polinizazioaren ehuneko 40a egiten du, eta hori oso beharrezkoa da. Horrez gain, animalia askoren elikagaia da: zapoena, sorgin-orratzena, amantisarena...

Tximeletak preziatuak dira?

Mundu zikin honetan tximeletekin ere trafikatu da. Amerikako Estatu Batuetatik tximeleta bat ekartzeko hemendik 400 eraman izan dituzte. Afrikako erregina batek 200.000 hegalek erabili zituen berarentzako kapa bat egiteko. Tximeleten merkataritza dago dagoeneko.

Beste proiekturik baduzu?

Bai. Orain argazkiak kamera digitalarekin egiten ditut eta flasharen laguntza ere dut: beste puntu bat ematen die horrek argazkiei. Argazki hauek sorgin-orratzekin egiten hasi naiz, eta denbora askoz gutxiagoan espero dut liburu bat egitea. Desberdina izango da, ez du puntu poetikorik izango, eta batez ere, irudiak bortitzagoak izango dira, animalia bera gogorra delako. Ez du aurrekoarekin zerikusirik.



GAZTELU ▶ POLITIKA

Helegitea aurkeztu dute Kultur Etxeko auziko inputatuek

«Ezker abertzalearen aurkako epaiketa politikoa» izan dela eta «gutziz zentzugabea» dela salatu dute inputatuek



Inputatuei babesa emateko urte amaieran udalebearen aurrean eginiko kontzentrazioaren irudia. HITZA

MADDI SOROA

Joan den abenduaren 1ean kaleratu zen Gazteluko Kultur Etxeko auziaren inguruan inputaturik zeuden Tolosaldeko 25 lagunen aurkako sententzia. Horietatik 12 absolbitu egin bazituzten ere, gainontzeko 13 lagunei, Gaztelukoak gehienak, bi urteko gartzela zigorra eta 60.000.000 euroko isuna ezarri zizkien epaileak. Inputatuek, ordea, helegitea aurkeztu dute. Errekurtsoaren erantzuna sei hilabeteren buruan jakingo dela jakinarazi badute ere, epaitegietan izan den langileen grebaren ondorioz, erantzuna jakiteko epea atzeratu egin daitekeela aurrekusi dute.

Gazteluko Kultur Etxeko auzian inputaturiko lagunek azaldu dutenaren arabera, «epaiketa politikoa izan da, ezker abertzalearen aurkako epaiketa», izan ere, adierazitakoaren arabera, «25 inputatuetatik 12 absolbitu dituzte eta beste 13 inputaturik jarraitzen dugu, inputaturik daudenak zein diren ikusita, garbi dago pertsona zehatzen bila joan direla».

Egoera honen aurrean, «ezintasuna» agertu dute auzipetuek, baita «ez dagoela horrelako epaiketa jasateko eskubiderik» azaldu ere. Inputatuak izateko arrazioen aurrean —autoritatearekiko jazarpena— «mobilizazio guztiak era

baketsuan izan zirela eta bete beharreko pausuak bete zirela» azaldu dute, baita «epaiketan deklaratu zuten ertzainek esan zuten guztia legalki egina zegoela» gogoratu ere.

Prozesu guztia salatzeo eta inputatuei elkartasuna adierazteko, kontzentrazioa egin zuten Gazteluko udalebearen aurrean joan den astean 40 lagun inguruk *Erasoen gainetik herria eraiki* lelopean. Helburu nagusia, «bidegabekeriako epaiketa» salatzea izan zen, izan ere, auzipetuek azaldutakoaren arabera «sekulako ezintasuna sentitzen dugu, ezer egin ez dugunaren sentazioa baitugu, lanetik botatako lagunei elkartasuna adierazi besterik ez dugu egin».

Kultur Etxea itxi eta bertako langileak kaleratuak izatearen harira zera adierazi dute inputatuek «kosta ala kosta Gazteluko Kultur Etxea itxi nahi zuten eta azkenean lortu dute nahi zutena». Herrian Kultur Etxea ixtearen ondorioen harira, «lehen hemendik pasatzen zen haur eta gazte guztiak bizia ematen zioten herriari, orain, ordea, herria hilda dago», azaldu dute herritarrek, baita «Kultur Etxea ixteak herriari sekulako galera ekarri diola» gaineratu ere.

Aurrera begira, «helegitearen erantzuna zein den jakin arte itxarotea besterik ez dagoela» azaldu dute inputatuek.

ELDUAIN ▶ KIROLA

Binakako Txapelketako final atariko partida jokatu du gaur Zeberio

Altuna I. eta Urrutia garaitu ondoren, kitarakoa jokatzera behartu ditu

MADDI SOROA

Patxi Zeberio pilotari elduaindarrak Binakako Faustino Txapelketako kitarako partida jokatu du gaur Ionekin batera,

Altuna I. eta Urrutiaren aurka herenegun 40-31 irabazi ondoren. Gauzak horrela, bi bikoteek kitarako partida jokatu dute gaur 17:00etan Hernaniko Galarreta pilotalekuan, finale-

rako txartela nork eskuratuko duen jakiteko.

Binakako Faustino Txapelketako lehen partidaren Altuna I. eta Urrutia 40-26ko emaitzarekin nagusitu baziren ere; bueltakoan, herenegun jokaturikoa, Zeberio eta Ionek eskuratu zuten garaipena 40-31 emaitzarekin. Galtzen hasi ziren elduaindarrak eta Ion (2-8); denboraren poderioz, joko hobetzen jakin zuten, ordea, eta partida orekatzea lortu zuten (12-12). Erdialdera partida asko gogortu bazen ere (30-31) Zeberio txapelkunak bere maila ematen jakin zuen eta 24 tanto burutzearekin batera garaipena eskuratu zuen Ion bikotearen laguntzarekin.

Manuel Agirrezabala Matxin II. erremonista ohiak «partida



Zeberio txapelketa final atarian izango da gaur Galarretan. MADDI SOROA

irekia izango dela» uste du eta «bi bikoteek asko saiatu beharko dute garaipena lortzeko», adierazi du gaur jokatu den kitarako partidaren harira. Jokoari dagokionez, «partidaren gakoa Urrutiaren sakean» ongongo dela uste du Matxin II.ak, «sakearekin asmatzen badu min handia emango dio Zeberiori».

Gaur garaile ateratzen den bikoteak larunbatean jokatu du Binakako Faustino Txapelketako finala, 17:00etan Galarretan. Aurkaria nor den gauza jakina da gainera, Ezkurra eta San Migel, hain zuzen ere. Gogoratu, bikote honek erraz irabazi dituela Altuna II. eta Eizaguireren aurka jokaturiko partidak.

BERRIA egunkariak itzultzaile-zuzentzaileak behar ditu (erref.: euskara)

Balortutako da:

- Testuak itzultzen edo zuzentzen esperientzia izatea.
- Ingelese, frantsesez eta alemanez jakitea.
- Itzulpen masterra egina izatea.

Interesa izanez gero, bidali curriculumua urtarrilaren 15erako lanpostuak@berria.info helbidera, erreferentzia zehazturik.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrerak 2-0 irabazi dio Betizarrari, lau baja izan arren

Anttolin, Olano, Sagastibeltza eta Arangoaren baja du taldeak; gutxienez hilabete eta erdi eginen dute jokatu gabe



Aurrera taldearen denboraldi honetako partida bat. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Aurrerak 2. faseari lau bajekin ekin badio ere, lehenengo partida irabazi egin gu. Igandean jokatu zuten 2. zati honetako lehenengo partida Noaingo Bidezarra taldearen aurka eta 2-0 irabazi zuten.

«Baja dexenterekin joan ginen igandeko partidara. Gazteen taldeko pare bat jokalaririk hartu genituen eta oso ongi aritu ziren», azaldu du Aurrerako arduradunetako batek. Izan ere, lau dira min hartuta dauden jokalariek: Iñaki Anttolin, Unai Olano, Unai Sagastibeltza eta Jon Arangoa, eta gutxienez hilabete eta erditik gorako baja izanen dute guztiek. Igandean gazteek nola erantzun zuten ikusi ondoren, «pozik», azaldu dira arduradunak.

Lehenengo zatian leitzarrek

hobekixeago jokatu zuten arren, hutsean iritsi ziren atsedendira. «Antton Abruza atezainak egindako geldituak azpimarragarriak izan ziren lehenengo zatian».

Bigarrenengo zatian lehenengo aukera aprobetxatu eta Antton Gomezek lehenengo gola sartu zuen. Bigarrenengo, berri, Jabi Urriagak sartu zuen, penalti bidez. «Bigarrenengo zatian bi gol sartu ondoren partida gure alde ikusi genuen eta lasai gelditu ginen».

Fase hau horrela hasi eta «pozik» ageri dira jokalariek: «Lau jokalariren baja izan arren, lehenengo proba pasa dugu. Igandeko partida eta gero, gazteak ere atzetik heldu direla ikusi dugu, eta hauekin ere kontatu dezakegula».

Kiroltasunari dagokionez, «denetatik» egon zela azaldu

2. FASEA ▶ JARDUNALDIK

- 1.a eta 10.a.**
Aurrera - F.C. Bidezarra.
2.a eta 11.a.
Aurrera - C.D. Infanzones.
3.a eta 12.a. Aurrera - C.D. Universidad de Navarra.
4.a eta 13.a.
Aurrera - C.F. Beriain.
5.a eta 14.a.
Aurrera - C.D. Ardoi.
6.a eta 15.a.
Aurrera - C.D. Iluberri.
7.a eta 16.a.
Aurrera - C.D. San Cristobal.
8.a eta 17.a. Atsedendia.
9.a eta 18.a.
Aurrera - C.D. Ondalan.

dute Aurrerako arduradunek, izan ere epaileak adierazitakoa ez zela penaltia izan adierazi du, baina orokorrean «ongi» aritu zela ere esan dute.

Eguberriki pasa eta hasi berri den 2. zati honetan talde indartsuak egon badaude. Aurreko fasean ikusitakoaren ondorioz, San Cristobal arerio gogorra dela begiistakoa da, baina talde honetaz gain beste bi aukeratu dituzte Aurrerako arduradunak: Universidad de Navarra eta Iluberri.

Hilaren 21ean Universidad de Navarraren aurka ariko dira, eta 7. jardunaldiari (otsailak 18) itxaron beharko diote San Cristobalen aurka aurrez aurre aritzeko. Bitartean, txapelketak aurrera jarraituko du, eta igande honetan jokatu du Aurrerak hurrengo partida, Infanzonesen aurka.

GIZARTEA ▶



Aresoko botika. J. ASTIBIA

Farmazien guardiak aldatu egin dituzte

Lekunberriko, Goizuetako, Irurtzungo eta Arribekoen guardiak partekatuko dituzte

ERREDAKZIOA

Leitzako eta Aresoko farmazien guardiak aldatu egin dituzte. Horregatik, inguruko hainbat herritako farmazien artean eginen dituzte guardiak, Leitza, Areso, Lekunberri, Arribe eta Goizuetakoen artean, hain zuzen ere.

Erbiti Farmaziako Oihana Erbitik azaldu duen bezala, «Osasun Sailak hartutako erabakia da. Aurreko urtean zerbait deli egon diren aztertu eta hainbeste guardia ez egotea erabaki du, abisu gutxi baitaude». Gainera, legez guardiako farmazia 20 minutura

egon daiteke, eta horregatik bateratu dituzte Leitza, Areso, Lekunberri, Goizueta, Irurtzungo eta Arribekoen guardiak.

Herritarrek zerbait behar dutenean zuzenean guardiako farmazira joateko ohitura duten arren, legearen arabera aurrez 112 telefono zenbakira deitu beharra dago. «Gero 112tik guri deitzen gaituzte», dio Oihana Erbitik. «Niri ez zait axola zuzenean farmaziarra etortzen badira, baina etortzen dire une horretan ez bazaituzte harreraren harrapatzen, alde egiten dute. 112ra deituta, berriz, beti aurkitzen gaituzte».

FARMAZIAK ▶ GUARDIAK

HERRIAK.

Leitza. Erbiti farmazia.
Lekunberri. Mendia farmazia, Aralar kalea 25.
Leitza. Gimeno farmazia.
Lekunberri. Azpirotz-Zubiria farmazia (Aralar kalea, 43).
Leitza. Larraia farmazia.
Goizueta eta Arribe. Biak batera eginen dute guardia,

Apeztebea Lizaso, Kale Nagusia, 64, Goizueta.
Garmendia Goikoetbea, Kale Nagusia z/g, Arribe.
Leitza. Plaza-Arribea.
Irurtzungo. Gastearena-Martirena, Amaia Kalea, 4.
Areso. Goizueta farmazia.
Irurtzungo. Mutiolo Martirena, farmazia, San Martin kalea, 5.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Udalak Landainguruneke Etengabeko Ikaskuntza Heziketa Jardueren barruan bi ikastaro hauek eman nahi ditu herrian urtarrilean edo otsailean hasita: Euskal sukaldaritza sortzaile berria eta Ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazki-ukitua. Bi ikastaroak 30 ordukoak dira, 15 pertsona behar dira taldea osatzeko eta 2 orduko saiotan emango dira. Beraz, adin-nagusiko interesatuek udalebtxean, liburutegian edo 943 69 13 33 telefono zenbakira deituz eman dezakete izena. Kultura.irura@udal.gipuzkoa.net -era idatziz urtarrilaren 19a baino lehen.

Tolosa. Osakidetzako euskarazko azterketa prestatzeko matrikula zabalik dago Aitzol Udak Euskaltegian, hilabetearen bihar arte. Interesatuek deitu 943 65 10 06 telefono zenbakira.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ana Jesus Ansorenaren zeramika koadro lanak ikusgai, jubilatuen tabernan, hilabetearen 14ra arte.

Tolosa. Hondakinen Ingurugiro erakusketa ikusgai izango da urtarrilaren 13a bitarte Aranburu Jauregin. Bisita-orduak 17:30etik 20:30era.

Tolosa. Maria Jose Rekalderen eskultura erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian urtarrilaren 20ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

IRRATIA

Xtolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotza magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotza (errepikapena).
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Kartel handiekin iragartzen dute dendek merkealdia. I. TERRADILLOS



Arropa dendak dira merkealdian gehien saltzen dutenak. I. TERRADILLOS

Pagotxaren bila

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Atzo hasi zen merkealdia bi eskualdeetan; batez beste 122 euro gastatuko ditu herritar bakoitzak



Dendetako langileek nabaritu zuten atzo merkealdiaren lehen eguna. I. TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Goizean goiz merkatal gune ezagun baten sortu ziren ilara luzeak ziren atzo komunikabideetan hizpide. Ohiartzuna hain handia izan ez zen arren merkealdia ere heldu da gurera. Arropa, osagai, apaingarri eta bes-telako dendek *Merkealdia* kartela jarri dute euren erakuslehoetan eta halaxe mantenduko dute bi hilabetez.

Aurreikuspenen arabera, batez beste 122 euro xahutuko ditu herritar bakoitzak, batik bat arropan. Dendetako ardurunek itxaropenez hartuko dute sasoi, «denboraldia ez baita oso ona izan, eguraldia dela eta». Hori dela eta, salgai ugari dago oraindik denda gehienetan.

Kontsumitzaileen bulegotik ere deialdia egin dute, «neurritz eta arduraz egin daitezten erostaketak, eskubideak babesteko». %30arekin hasiko dituzte denda gehienetan, bakarren batzutan erdi prezioa ere ikus zitezkeen arren.

AGURRAK ▶

		
URTE ASKOAN Gerrero. Gaur 2 urte. Handitzen, handitzez ari naiz handitzen. Iaz bikia izanik. Arnezketako laukotearen partez.	URTE ASKOAN Ioritz Agirretxe (Aitsasu). Zorionak zure bosgarren urtebetetzearen ebekoan partetik.	URTE ASKOAN Kimetz Manxo (Amaroz). Gaur 3 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko eztejak, ezkontzak, jaioberriak...